



EDITORIALA

EAE-KO GIZARTE ZERBITZUEN LEGE BERRIA

E
A
L
D
I
Z
K
A
R
I
A

H
E
G
O
L
G
U
F

**EUSKAL HERRIKO GORREN LAGUN ETA GURASOEN
ELKARTEEN FEDERAKUNDEA**

Azkenean, EAEko alderdi gehienak ados jarri dira, eta, abenduaren 9an, zuzenketa, adostasun eta desadostasunez jositako eztabaida luzea eta gogorra izan ostean, Eusko Legebiltzarrak EAEko Gizarte Zerbitzuen Legea –1996koa ordezkaturiko duena– onartu du.

Zenbait komunikabidetan irakurri dugunaren arabera:

Legeak Gizarte Zerbitzuen EAEko sistema taxutzen du, pertsonak gizarteratzeko, euren partaidetza eta autonomia bultzatzeko laguntza publikoko sare baten gisa taxutu ere. Sistema horri esker, hain zuzen, herritarrek aitortuta dituzten eskubideak gauzatu ahalko dituzte, eta behar dituzten gizarte-zerbitzuak edozein unetan baliatu.

Sistemak zerbitzu pertsonalak lehenesten ditu prestazio ekonomikoen aldean. Batzukein besteak unibertsalak izango dira, eta mota honetakoak: neurri teknikoak (informazioa, balorazioa, diagnostikoa, orientazioa, bitartekotza, etxeko laguntza eta laguntza pertsonala, eta gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua), ekonomikoak eta teknologikoak.

Proiektuak pertsona orok gizarte-zerbitzuak baliatzeko duen eskubidea bermatzen du, baita legeak Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoan sartzen dituen prestazioak eta zerbitzuak erabiltzeko ere. Prestazioak eta zerbitzuak baliatzea eskubide subjektibo gisa eratzten du, bide administratibotik zein judizialek eska daitekeena.

Azken finean, horiek guztiak hitz politak baino ez dira, eta bete daitezela exijitu beharko da. Eta bete beharko dira hala gaiak eragindako kolektiboek dagokionez (guri, esaterako), nola gizarte-zerbitzuen sektorean, hiru lurraldeetan, berdintasunezko laguntza egon dadin ahaleginetan dabilzan lagun guztiei dagokienez ere bai. Lurralde batean edo bestean jaiotzeak edo bizitzeak ezin baitu tratu desberdina eragin.

Legea onartu izana positiboa den arren, berriz ere memoria ekonomiko barik jaio da, eta hori funtsezkoa da beteko den ala ez jakite aldera. Izan ere, arazoa ez baita legeak onartzea, baizik betetzea, eta, kasu honetan, legea betetzeko ezinbestekoa da behar diren baliabideak ezartzea.

Euskal Herriko Gorren Lagun eta Gurasoen Elkartearen Federakundeak (FEVAPAS) eta berau osatzen dugun elkarteok gure kolektiboari dagozkion eskubideak bete daitezela zaindu beharko dugu.

FEVAPAS-en PROGRAMAK

SOZIALIZATZEKO JARDUERAK

Aisialdia edozein pertsona garatzeko eta sozializatzeko denboraldi garrantzitsua dela ulerturik, Fevapas “**Sozializatzeko jarduerak 2008**” proiektua garatu du, eta horren barruan zenbait programa, helburu nabarmen hezitzaile batez. Hona:

Otsailaren 16an, 20 neska-mutiko **Zegamara** joan ziren; bertan egurraren museoa eta zonako errota bat bisitatu zituzten; bazkaldu ondoren, elurrik ez, eta herrian geratu ziren jolasten eta zenbait kontu egiten.



Maiatzaren 9tik 11ra, Fevapas federakundeko 37 ume eta gaztek Orion igaro zuten asteburua.

Eguraldi txarra zegoenez, jarduera eta lantegi asko esparru txikian egin behar izan zituzten.

Igandean, eta atertu ondoren, herrian paseatzen ibili ziren, feria-eguna disfrutatzeko aukera aprobetxatuz.

Ekainean, Fevapasen **Gazteen VIII. topaketa** izan zen; hala, lau egunez, hamaika gaztek inguruaz gozatu zuten, eta Zuatza irlan (Araba) zenbait jarduera egin zuten uretan. Beste urte batez, berriro ere, leku hori oso aproposa bilakatu zen bizikidetzarako: gazteekin joandako irakasleek eurekin batera gai interesgarriak lantzeko aukera izan zezaten ezin hobea.

Aurtengo **udalekuak uztailaren 20tik 30era** egin ziren, **Entrambasaguasen (Kantabria)**.

Orobat, mota askotako jardueren bitartez primeran pasatzeko aukera izan zuten 7 eta 14 urte bitarteko 37 umek (26 gor eta 11 entzule): bi egun hondartzan, Cabárceno bisitatu zuten, baita Altamirako kobazuloak, Santillana del Mar eta Santander ere;

zenbait ibilbide egin zuten zonako natura-ingurunea ezagutzeko, eta jarduera asko igerilekuan

(aterpeak berea baitzuen), eta, horretaz gain, lantegiak, gau ekitaldiak eta jolasak.



Udalekuan izandako egunetan, Fevapaseko kideek zenbait jarduera egin zuten elkarrekin, eta esperientziak trukatu aterpeko beste taldeetarikoa batekin: Bizkaiko ume diabetikoekin. Azpimarratzekoak dira Fevapaseko gazteen bisitak, eta, iaz bezala,



24 ume gor bielorrusiarrena, Araban oporrak pasatzen ari zirena. 2008an, programa

honi esker entzuteko urritasuna duten zenbait gaztek, federatutako elkartetakoek, praktikak egin zituzten begirale titulua lortzeko.

Parte-hartzaileek zein begirale arduradunek oso positibotzat jo dute programa.

Urriaren 3an bertan behera utzi zen, jende gutxi inskribatu zelako, Bermeora programatutako txangoa, oso bisita interesgarriak egitekoak baziren ere: arrantzalearen museora, XVII. mendeko baleontzi batera eta Busturiako Maderiaga dorrera.

Abenduaren 29an, Fevapas berriro ere Barakaldoko Haurren Gabonetako Parkean izango da. Aurreko urteetako arrakasta bera izatea espero dugu.



2009KO BEHIN-BEHINEKO EGUTEGIA

Otsailak 14— Txangoa Urbasara

Maiatzaren 15etik 17ra— Asteburu pasa Bizkaia aldean

Ekainaren 23tik 26ra—Gazteen topaketa— Arabako Zuatza irlan

Uztaila—Udalekuak Nafarroan

Urriak 3—Txangoa Araba aldean

BOLUNTARIOAK— Begiraleak

Aipatutako jarduera guztiak ez lirateke posible izango elkarte federatuek eta Fevapasek dituen begirale boluntario-taldearen laguntzarik gabe.

Horregatik, federazioak, "Boluntario antolatuak prestatzeko, laguntzeko eta sustatzeko" programaren bidez, boluntariook Fevapaserako egiten duten lanean sortutako gastu, joan-etorri eta dieta guztiak ORDAINTZEN ditu; eta zenbait urte darama **prestakuntza-ikastaro** bat antolatzen, beteranoen prestakuntza gaurkotzeko eta taldeko kideen erreleboa lortzeko asmoz.

"LAN-TALDEA; ekipoa, koordinazioa, komunikazioa, gaitasun sozialak..."

Horixe da aurten, Gasteizko Carlos Abaitua aterpean, **urriaren 25 eta 26an, begiraleak prestatzeko** egindako **ikastaroaren** izenburua.

17 lagun ibili dira horretan: 7 gor eta 10 entzule. Zeinuen mintzairaren interpretari bi aritu dira.

"AZ procesos participativos" da, langile kualifikatuen bidez, ikastaroa eman zuen enpresaren izena.



Parte-hartzaileek bete dituzten bi ebaluazioak (bat Fevapasek egina antolakundeari buruz eta bestea AZ-ek entregatutakoa, edukiei buruz) oso emaitza positiboak eman dituzte, eta horrexek bultzatzen du federazioak programarekin aurrera egiteko eta ildo horretan lan egiten jarraitzeko.

FAMILIAK

2008an, Fevapas-ek, familiaren eta eragindakoen BIZI KALITATEA HOBETZEKO helburu nagusizat duela, jarraitu du **elkarte federatuak koordinatzen**, familiei laguntzeko elkarrekin egiten duten lan bateratuan.

Lanaren xedeak: 1.- Orientazio eta informazio gaurkotua, zabala eta zehatza 2.- Laguntza psikologikoa eta emozionala, eta 3.- Familiari informazioa eta prestakuntza ematea.

Baliabideak: 1.- Zuzeneko laguntza eta kasuz kasuko segimendua. 2.- Banakako eskaerak kudeatzea. 3.- Aita-amek aita-ameei laguntzea. 3.- Gogoeta eta prestakuntza-taldeak. 4.- Laguntza psikologikoa. 5.- Familia-topaketak. 6.- Sozializatze-ekintzak..... 7.- Zenbait profesionalekin aldizka koordinatzea (otorrinoekin, audioprotesistekin, logopedekin, hezitzaileekin, eta abar). 8.- Informazioa eta prestakuntza emateko hitzaldiak. 9.- Sentsibilizazio-ekintzak.....

Bestalde, Fevapasek honako hauek ere egin ditu: 1.- Gorren beste erakunde eta federazio batzuekin koordinatu da. 2.- Zenbait forotan izan eta parte hartu du (Edekan, Boluntarioen Euskal Kontseiluan, Eusko Jaurlaritzako batzorde sektorialetan). 3.- Bilerak egin ditu Eusko Jaurlaritzako zenbait sailletako ordezkariekin, gure taldean interes eta eragin handia duten gaiak lantzeko, eta 4.- Zenbait jardunaldi, mintegi eta hitzalditan izan da.

2008ko DIRU-LAGUNTZAK

Federazioak aurrera egin dezan, baita programa horiek guztiak finantzatzeko ere, urte hasieran laguntza ekonomikoak eskatu genizkien Eusko Jaurlaritzako sailei, finantza-erakundeei, eta, federatutako elkarten bidez, lurralde bakoitzeko foru-aldundiei.

Eusko Jaurlaritzaren ebazpenak azaroan heldu dira, eta abenduan hasi dira onartutako zenbatekoak ordaintzen.
Diru laguntzen ebazpenak atzeratzeak eta, horren ondorioz, erabil daitekeen dirua ere beranduago heltzeak segurtasunik falta handia sortzen du eguneroko lanean eta programen garapenean.

Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak emandako diru-kopuruak federazioak antolatzen eta garatzen dituen udalekuak finantzatzera bideratzen dira.

2008an, zenbait finantza-erakundek **-KUTXA, CAN y CAIXA -** euren gizarte-ekintzen edo fundazioen bidez, diru-laguntza eman diote gure erakundeari, Fevapas-en proiektu nagusirako edo haren programetarako baterako.

FEVAPAS ZEINEKIN

Eusko Jauriaritzako HEZKUNTZAarekin: Otsailaren 13an, Hezkuntza Batzordearekin batzartu zen. Fevapas haren kidea da-eta; hona landutako gai-zerrenda: - Gorreria duten ikasleen segimendua/Funtzionamendu-egitura/Laguntza teknikoak/ eta Laguntzaile gorraren figura. Gaur egun, deialdi berriaren zain gaude, tratatzeke dauden gaiak lantzeko eta ikasle gorren segimendua egiteko (08/09 ikasturtea).

OSAKIDETZAarekin: Irailaren 9an, federatutako elkarten ordezkariak eta federaziokoak bertakoak zuzendariarekin eta Osakidetza Laguntza Espezializatutako aholkulari tekniko batekin batzartu ziren. Gaia: **Detekzio goiztiarra**; besteak beste, programa honen zenbait faseri buruz egiten ari den ikerketa-lanaren gorabeheren eta emaitzen berri ematera konprometituz, bai oraingo egoerari dagokionez, baita aldatu eta/edo hobetu beharreko puntuei dagokienez ere.

Eusko Jauriaritzako OSASUNAarekin: Eusko Jauriaritzako Osasun Sailaren Finantziario eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendari-tzako arduradunekin bilera bat egiteko eskatu dugu, besteak beste, audiofonoak eta kokleako inplanteak finantzatzeko, mantentzeko eta konpontzeko.

ARARTEKOarekin: Urriaren 13an, Fevapas eta Euskal Gorra Arartekorekin eta haren bi aholkulariekin batzartu ziren, Fevapas-ek erakunde horretan aurkeztu zuen kexa-idazkian planteatutako gaia aztertzeko, EITBk eta Kultura Sailak ez omen baitute Irisgarritasunari buruzko Legea betetzen.

Horri dagokionez aspaldi egin ditugun eskaeren, kudeaketen eta bileren berri izan ostean, Arartekoak lana ikertzera eta horren gainean lan egitera konprometitu zen, baita emaitzen, ondorioen eta lortutako txostenen berri ematera ere.

: EITBren Legebiltzar Kontrolak, 2008ko urriaren 14an egindakoak, ez-legezko proposamen bat onartu zuen; haren bidez, bi hilabete igaro baino lehen batzorde horri gorrentzako azpitu-titulutako programazioaren proposamena helarazteko eskatu zitzaion EITBri; proposamenak orduka azalduta behar zuen, eta, funtsean, urte hasieran sinatutako 2007-2010 Kontratu eta Programan hitzartutakoa baino zabalagoa.

EDEKAarekin - Aurrera jarraitzen du ezintasunen ordezkoen euskal koordinakundeak. Urte hasieran estatuko Cermiri atxiki zitzaion— Urrian, legebiltzarreko batzordean agertu zen haren ordezkapen ofizialerako. Lanean jarraitzen du hark funtzionatzen jarrai dezan...

FEVAPAS NON...

1.- Elkarten 7/2007 Legeak 3/1988 Legeari eginiko aldaketei buruzko hitzaldian—2008ko urtarrilean— Eusko Jauriaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza saileko teknikari bat hizlari.

2.- Hiritartasun eta autonomia pertsonalaren eskubideei buruzko hitzaldian.

2008ko maiatzean—Antolatzailea: Fekoor (Gutxitasun Fisikoa duen Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea)

3.- Herritarrek politikan parte hartzeari buruzko Biltzarrean: "Herritarrak politikaren muinean" - 2008ko ekainean—Antolatzailea: Eusko Jauriaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila

4.- Enpresako Boluntarioei buruzko IV. Jardunaldian—2008ko ekainean—Antolatzaileak: Eusko Jauriaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

5.-"Irisgarritasun unibertsala, Guztiontzako udalerrriak" jardunaldian—2008ko azaroan—Antolatzaileak: Vitoria-Gasteizko Udala eta Predif

(Ezintasun Fisikoren bat duten Pertsonen Plataforma Nazionala)

6.- Zeinu hizkuntza errekonozitzen duen 27/2007 legea onartzearen inplikazio legalak eta sozialen inguruko saioan

2008ko azaroan—Antolatzailea: Bizkaiko Gorra



FEVAPASEN PARTEZ

ZORIONAK!

LAGUNTZAILEAK



Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila